


# EGONALDIAK | ESTUDIOAK ETA BALIABIDEAK UZTEKO DEIALDIA

DEIALDI IREKIA ETA JARRAIA - 2. ORRIALDEA

# ESTANCIAS | Convocatoria de cesión de estudios y recursos.

CONVOCATORIA CONTINUA Y ABIERTA - PÁGINA 8

Huarte
ARTE GARAIKIDEKO ZENTROA
CENTRO DE ARTE CONTEMPORANEO

# EGONALDIAK | ESTUDIOAK ETA BALIABIDEAK UZTEKO DEIALDIA

## 1. Estudioak

## 2. Baliabideak: laborategiak / materialak / espazioak

**Artista eta kolektiboentzako Uharte Zentroko estudioak eta baliabideak aldi baterako uzteko deialdi jarraitua eta irekia.**

**Uharte Zentroak arte garaikidea lantzen duten artistei, sortzaileei eta kultur eragileei estudioak eta baliabideak aldi baterako uzteko deialdi jarraitua eta irekia eskaintzen du.**

**Edozein arte-diziplinatara irekia, topaketa- eta lankidetza-gune bat sortu nahi da, hainbat eragile eta haien proiektuak Uharte Zentroaren ingurunean elkarrekin bizi daitezen.**

### NORI ZUZENDUA

Deialdia edozein diziplinatako proiektu artistikoa duten eta edozein prozesuaren edozein fasetan dauden pertsona eta kolektiboei zuzenduta dago – artistak, kolektiboak, elkarteak –.

Ez dago jatorriagatik, nazionalitateagatik edo bizilekuagatik inolako murrizketarik.

### ZER ESKAINTZEN DA

Uharte Zentroan erabilgarri dauden espazioak, horietako batzuk modu partekatuan erabil daitezkeenak, proiektu bakoitzaren beharren arabera esleitzen dira. Honako hauek izan ohi dituzte:

- Uharte zentroko altzariak, korronte elektrikoko hartuneak, argiztapena eta WI-FIa.
- Espazio eta elementu komunetarako sarbidea (sukaldea, bilera-gela, bulegoak, fotokopiagailua…)

- Dokumentazio-zentroko funtsak eskuratzea eta mailegatzea.
- Uharte Zentroko taldearen laguntza teknikoa eta kontzeptuala.
- Laborategietara sartzea aldez aurretik erreserbatuta. Ikus ekipamenduak hemen: https://www.centrohuarte.es/eu/zentroa-2/instalazioak

## SARRERA ORDUTEGIA

Uharte Zentroan Egonaldiak garatzeko ordutegia honako hau da:

Astelehenetik ostiralera: 10:00etatik 19:45era (lehen solairuko laborategietan izan ezik)

## OINARRIEN ONARPENA

Parte-hartzaileek, deialdira aurkezte hutsagatik, oinarri hauek onartzen dituzte.

## MODALITATEAK

Bi modalitate daude ezarrita: **estudioak** eta **baliabideak**.

# 1. EGONALDIAK - ESTUDIOAK

Modalitate honen helburua, beren lana Uharte Zentroko instalazioetan egin dezaten, artistak eta ikertzaileak hartzea da. Proiektuak edozein fasetan aurki daitezke.

## EGONALDIAREN IRAUPENA

Egonaldien iraupena proiektu bakoitzaren ezaugarri eta behar espezifikoen araberakoa izango da.

Nolanahi ere, gehienezko iraupena 6 hilabetekoa da, baina urtebetera arte luza daiteke.

Beharrezkoa izanez gero, luzapenak adostu ahal izango dira, baldin eta itxaron-zerrendan espazio eta/edo baliabide horiek behar dituzten beste proiekturik ez badago. Hala ere, iraupen zehatza eta hura garatzeko datak hautatutako artistaren edo eragilearen eta Uharte Zentroko taldearen artean adostuko dira, eta Uharte Zentroak programazioari dagokionez dituen eskuragarritasunaren eta konpromisoen mende egongo dira; azken batean, erabakia Uharte Zentroari dagokio.

Luzapenak egonaldiaren aprobetxamendu egokiaren eta parte hartzeko baldintzen mende egonen dira (blogean argitaratzea, espazioa erabiltzea…).

## BALORAZIO IRIZPIDEAK

Uharte Zentroko taldea hilaren 10ean bilduko da jasotako proposamenak baloratzeko. Hilabete bakoitzeko 10etik 12ra bitartean jakinaraziko zaie ebazpena eskatzaileei.

Aldi baterako egonaldien proposamenak hautatzeko, honako irizpide hauek hartuko dira kontuan:

1. Uharte Zentroak dituen baliabideen eta espazioen bideragarritasuna eta egokitzapen-maila.
2. Proposamen artistikoak sortzeko, ekoizteko eta/edo zabaltzeko modu berrien ikerketan sakontzeko borondatea.
3. Proposamenaren eta eskatzailearen edo eskatzaileen ibilbidearen koherentzia.
4. Gainera, positiboki baloratuko da Zentroko jarduerei eta testuinguruari egiten zaien ekarpena.
5. Aurreko egonaldiak izan baditu, parte hartzeko baldintzak bete izatea.

Batzordeak uste badu proposamena irizpideekin bat datorrela, baina ezin izan bada aukeratua izan lekurik ez dagoelako, itxarote-zerrenda batera pasako da ahal denetik onartua izateko.

## AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

Izena emateko, https://www.centrohuarte.es/eu/egonaldiak-2023 helbidean dagoen online inprimakia bete beharko da.

Proiektuaren txosten labur bat beharko da, ekimena aurkezten duen pertsonaren/taldearen aurkezpena barne.

Erakundeek edo kolektiboek ordezkari bat izendatu beharko dute.

## PARTE HARTZE BALDINTZAK

Deialdi honetara aurkezteak honako konpromiso hauek onartzea dakar:

- Onuradun bakoitzak bere egonaldiari buruzko memoria aurkeztu beharko du egonaldia amaitzean.
- Onuradunak, une horretan egiten ari den lana partekatzeko helburuarekin, gutxienez hilean behin sarrera bat igo beharko du Uharte Zentroko centrohuarte.es/blogh blogera. Edozein formatutan izan daiteke: testua, bideoa, argazkia Egonaldiaren hasieran erabiltzaile bat eta blogera sartzeko pasahitza emango zaizkio.
- Bere egonaldia obra edo argitalpen baten ekoizpenarekin lotuta badago, Uharte Zentroa izena kredituetan agertu beharko da.
- Onuradunek ezingo dute Uharte Zentroa izena erabili aldez aurreko baimenik gabe. Uharte Zentroak edozein euskarritan egiten den zabalkunde publikoa baimendu beharko du.

- > Onuradunak Uharte zentroko lan-espazioak eta ekipamenduak zaindu beharko ditu, eta egonaldia amaitzean, espazioa aurkitu zuen baldintzetan utzi beharko du.
- > Onuradunak bere ondasunen erantzukizuna hartuko du.
- > Uharte Zentroak beretzat gordetzen du espazioetakoren bat erabiltzeko eskubidea, espazioaren ezaugarrien arabera.
- > Uharte zentroak egonaldian dauden artisten elkarreraginerako topaguneak sustatuko ditu.

## 2. EGONALDIAK - BALIABIDEAK: laborategiak / materialak / espazioak

Modalitate honen helburua ikerketa-fasean nahiz formalizazio- edo ekoizpen-fasean dauden eta baliabide baten erabilera funtzionala eskatzen duten proiektu artistikoen premia zehatzentzat egonaldi puntualak hartzea da.

### LUZAPENAK

Beharrezkoa izanez gero, luzapenak adostu ahal izango dira, baldin eta itxaron-zerrendan espazio eta/edo baliabide horiek behar dituzten beste proiekturik ez badago. Hala ere, iraupen zehatza eta hura garatzeko datak artista edo agente hautatzailearen eta Uharte Zentroko taldearen artean adostuko dira, eta Uharte Zentroak programazioari dagokionez dituen eskuragarritasunaren eta konpromisoen mende egongo dira; azken batean, Uharte Zentroari dagokio erabakia hartzea.

### BALORAZIOA IRIZPIDEAK

Uharte Zentroko taldea hilaren 10ean bilduko da jasotako proposamenak baloratzeko. Hilaren 10etik 12ra bitartean jakinaraziko zaie ebazpena eskatzaileei.

Baliabideen egonaldien proposamenak hautatzeko, honako irizpide hauek hartuko dira kontuan:

1. Uharte Zentroak dituen baliabideen eta espazioen bideragarritasuna eta egokitzapen-maila.
2. Proposamenaren eta eskatzailearen edo eskatzaileen ibilbidearen koherentzia.
3. Aurreko egonaldiak izan baditu, parte hartzeko baldintzak bete izatea.

### AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

Izena emateko, [https://www.centrohuarte.es/eu/egonaldiak-2023](https://www.centrohuarte.es/eu/egonaldiak-2023) helbidean dagoen online inprimakia bete beharko da.

Egin nahi denaren eta erabili nahi diren baliabide espazial zein teknikoen definizio zehatza azaldu beharko da.

Erakundeek edo kolektiboek ordezkari bat izendatu beharko dute.

## PARTE HARTZEKO BALDINTZAK

Deialdi honetara aurkezteak esan nahi du honako konpromiso hauek onartzen direla:

- Onuradunak Uharte zentroko languneak eta ekipamendua zaindu beharko ditu, eta egonaldia amaitzean, espazioa aurkitu zuen baldintzetan utzi beharko du.
- Onuradunak bere ondasunen erantzukizuna hartuko du.
- Bere egonaldia obra edo argitalpen baten ekoizpenarekin lotuta badago, Uharte Zentroa izena kredituetan agertu beharko da.
- Onuradunek ezingo dute Uharte Zentroa izena erabili aldez aurreko baimenik gabe. Uharte Zentroak edozein euskarritan egiten den zabalkunde publikoa baimendu beharko du.

## MODALITATEAK

**Hiru azpi modalitate** ditu Baliabideak modalitateak:

### 1. Laborategiak

Deialdi honen bidez, laborategiak erabiltzea eska daiteke.

Kontsultatu eskuragarri dauden ekipamenduak hemen: https://www.centrohuarte.es/eu/zentroa-2/instalazioak

Behin eskaera onartuta, beharrezkoa izango da aldez aurretik espazio hori erreserbatzea.

Egonaldiaren gehieneko iraupena 6 hilabetekoa izango da.

### 2. Materialen mailegua

Uharte zentroak material jakin bat du zentrotik kanpoko proiektu artistikoetan erabiltzeko.

Laster igoko dugu maileguan dagoen materialaren zerrenda. Edozein zalantzarako, Uharte Zentroko lantaldeari galdetu.

Lagapen horien gehieneko iraupena 7 egun naturalekoa da. Uharte Zentroko arduradunak materiala aztertu ondoren luzatu ahal izango da mailegua.

### 3. Espazioak

Uharte zentroak hainbat ezaugarri dituzten espazioak ditu, eta behar dituzten pertsonen

eskura jartzen ditu beren proiektu artistikoak garatzeko.

Kontsultatu hemen zentroko espazioak https://www.centrohuarte.es/eu/zentroa-2/instalazioak

Espazio horien erabileraren gehienezko iraupena 2 astekoa da.

Edozein espazioren erabileraren onarpena Zentroaren programazioak baldintzatuko du.

# ESTANCIAS | CONVOCATORIA DE CESIÓN DE ESTUDIOS Y RECURSOS

## 1. Estudios

## 2. Recursos: laboratorios / materiales / espacios

**Convocatoria continua y abierta de cesión temporal de estudios y recursos del Centro Huarte para artistas y colectivos.**

**El Centro Huarte ofrece un programa de cesión temporal de estudios y recursos para dar apoyo a artistas, creadores y agentes culturales que trabajen el contexto del arte contemporáneo.**

**Abierta a cualquier disciplina artística, con la que se busca generar un espacio de encuentro y colaboración en el que les diferentes agentes y sus proyectos convivan en**

el entorno del Centro Huarte.

### A QUIÉN SE DIRIGE

La convocatoria está dirigida a personas y colectivos -artistas, colectivos, asociaciones– con un proyecto artístico de cualquier disciplina y en proceso en cualquiera de sus fases.

No hay restricción alguna por razón de origen, nacionalidad o lugar de residencia.

### QUÉ SE OFRECE

Los espacios disponibles en el Centro Huarte, algunos de los cuales se pueden utilizar de manera compartida atendiendo a las necesidades de cada proyecto. Incluyen:

> Mobiliario del Centro Huarte, tomas de corriente eléctrica, iluminación y WI-FI.

> Acceso a espacios y elementos comunes (cocina, sala de reuniones, oficinas,

fotocopiadora…)

- Acceso y préstamo de los fondos del Centro de documentación.
- Asistencia técnica y conceptual por parte del equipo del Centro Huarte.
- Acceso a los laboratorios previa reserva, consulta los equipamientos en www.centrohuarte.es/el-centro/instalaciones

### HORARIO DE ACCESO

Las estancias tendrán acceso al Centro Huarte en el siguiente horario: De lunes a viernes: de 10.00 a 19.45 horas (a excepción de los laboratorios de la primera planta)

### ACEPTACIÓN DE LAS BASES

Les participantes, por el mero hecho de presentarse a la convocatoria, aceptan las presentes bases.

### MODALIDADES

Se establecen dos modalidades de estancias: **estudios** y **recursos**

## 1. ESTANCIAS: ESTUDIOS

Esta modalidad va dirigida a acoger artistas e investigadores para que desarrollen su trabajo en las instalaciones del Centro Huarte. Los proyectos pueden encontrarse en cualquiera de sus fases.

### DURACIÓN DE LA CESIÓN

La duración de las estancias dependerá de las características y necesidades específicas de cada proyecto.

En cualquier caso, la duración máxima es de 6 meses, aunque es prorrogable hasta un año.

En caso necesario podrán establecerse prórrogas de mutuo acuerdo y siempre que no existan otros proyectos en lista de espera que necesiten de esos mismos espacios y /o recursos. En cualquier caso, la duración concreta y las fechas para su desarrollo serán consensuadas entre le artista o agente seleccionade y el equipo del Centro Huarte, estando sujetas a la disponibilidad y compromisos que tenga el Centro Huarte en relación a su programación, correspondiendo la decisión, en última instancia, al Centro Huarte.

Las prórrogas estarán condicionadas al aprovechamiento adecuado de la estancia y al cumplimiento de las condiciones de participación (publicación en el blogH, uso del espacio…).

## CRITERIOS DE VALORACIÓN

El equipo del Centro Huarte se reunirá el día 10 de cada mes para valorar las propuestas recibidas. Entre el día 10 y 12 de cada mes se comunicará la resolución a les solicitantes.

Para la selección de las propuestas de Estancias temporales se tendrán en cuenta los siguientes criterios:

1. Viabilidad y nivel de adecuación a los medios y espacios de que dispone el Centro Huarte.
2. Voluntad de profundizar en la investigación de nuevas formas de creación, producción y/o difusión de propuestas artísticas.
3. Coherencia tanto de la propuesta como de la trayectoria de le solicitante o solicitantes
4. Además, se valorará positivamente el grado de contribución a las actividades y contexto del Centro.
5. En el caso de haber disfrutado de estancias anteriores, cumplimiento de las condiciones de participación.

Aquellas propuestas que la comisión considere que se ajustan a los criterios pero que no hayan podido ser seleccionadas debido a la falta de disponibilidad de espacios, pasarán a una lista de espera para ser admitidas en cuanto haya disponibilidad.

## DOCUMENTACIÓN A PRESENTAR

La inscripción deberá realizarse cumplimentando el formulario de solicitud online disponible en https://www.centrohuarte.es/estancias

Se requerirá un breve dossier del proyecto incluyendo presentación de la persona/equipo que presenta la iniciativa.

Las entidades o colectivos deberán designar una persona representante.

## CONDICIONES DE PARTICIPACIÓN

El hecho de presentarse a esta convocatoria implica reconocer la aceptación de los siguientes compromisos:

- Cada beneficiarie deberá presentar una memoria sobre su estancia al término de la misma.
- Le beneficiarie deberá subir, al menos, una entrada al mes al blog del Centro Huarte es/blogh con el objetivo de compartir el trabajo que está realizando en este espacio. Puede ser en cualquier formato: texto, vídeo, fotografía… Al inicio de la estancia se le asignará une usuarie y contraseña para acceder al blog.
- En el caso de que su estancia esté relacionada con la producción de una obra o una publicación el nombre Centro Huarte deberá aparecer en los créditos.

- Les beneficiaries no podrán hacer uso del nombre Centro Huarte sin permiso previo. El Centro Huarte tendrá que autorizar la difusión pública que se haga en cualquier soporte.
- Le beneficiarie deberá cuidar de los espacios de trabajo y los equipamientos del Centro Huarte y al término de la estancia, deberá dejar el espacio en las condiciones que lo encontró.
- Le beneficiarie se hará responsable de sus bienes personales.
- El Centro Huarte se reserva el derecho de uso de alguno de los espacios por las características del mismo.
- El Centro Huarte promoverá espacios de encuentro para la interacción de artistas en estancia.

## 2.ESTANCIAS: RECURSOS

Esta modalidad va dirigida a acoger necesidades puntuales de proyectos artísticos que estén en fase tanto de investigación como de formalización o producción y que requieran de un uso funcional de un recurso.

### PRÓRROGAS

En caso necesario podrán establecerse prórrogas de mutuo acuerdo y siempre que no existan otros proyectos en lista de espera que necesiten de esos mismos espacios y /o recursos. En cualquier caso, la duración concreta y las fechas para su desarrollo serán consensuadas entre la persona artista o agente seleccionade y el equipo del Centro Huarte, estando sujetas a la disponibilidad y compromisos que tenga el Centro Huarte en relación a su programación, correspondiendo la decisión, en última instancia, al Centro Huarte.

### CRITERIOS DE VALORACIÓN

El equipo del Centro Huarte se reunirá el día 10 de cada mes para valorar las propuestas recibidas. Entre el día 10 y 12 de cada mes se comunicará la resolución a les solicitantes.

Para la selección de las propuestas de Estancias de recursos se tendrán en cuenta los siguientes criterios:

Viabilidad y nivel de adecuación a los medios y espacios de que dispone el Centro Huarte.

Coherencia tanto de la propuesta como de la trayectoria de le solicitante o solicitantes.

En el caso de haber disfrutado de estancias anteriores, cumplimiento de las condiciones de participación.

## DOCUMENTACIÓN A PRESENTAR

La inscripción deberá realizarse cumplimentando el formulario de solicitud online disponible en https://www.centrohuarte.es/estancias

Se requerirá la definición precisa de lo que se pretende hacer y de los recursos concretos, tanto espaciales como técnicos, que se pretende utilizar.

Las entidades o colectivos deberán designar una persona representante.

## CONDICIONES DE PARTICIPACIÓN

El hecho de presentarse a esta convocatoria implica reconocer la aceptación de los siguientes compromisos:

- Le beneficiarie deberá cuidar de los espacios de trabajo y equipamiento del Centro Huarte y al término de la estancia, deberá dejar el espacio en las condiciones que lo encontró.
- Le beneficiarie se hará responsable de sus bienes personales.
- En el caso de que su estancia esté relacionada con la producción de una obra o una publicación el nombre Centro Huarte deberá aparecer en los créditos.
- Les beneficiaries no podrán hacer uso del nombre Centro Huarte sin permiso previo. El Centro Huarte tendrá que autorizar la difusión pública que se haga en cualquier soporte.

## MODALIDADES

Existen **tres** modalidades dentro de la modalidad de Recursos:

### 1. Laboratorios

A través de esta convocatoria se puede solicitar el uso de los laboratorios.

Consulta los equipamientos disponibles en www.centrohuarte.es/es/el-centro/instalaciones

Una vez aceptada la solicitud será necesario realizar una reserva previa de este espacio.

La duración máxima de la estancia de 6 meses.

## 2. Préstamo de materiales

El Centro Huarte dispone de cierto material para su uso en proyectos artísticos fuera del Centro.

El listado de material estará próximamente disponible. Para cualquier duda, consulta al personal del Centro.

La duración máxima de estas cesiones es de 7 días naturales. Se podrá prorrogar el préstamo tras la revisión del material por parte de la persona responsable del Centro Huarte.

## 3. Espacios

El Centro Huarte tiene espacios con diferentes características que pone a disposición de las personas que los necesiten para el desarrollo de sus proyectos artísticos.

Consulta aquí los espacios del Centro https://www.centrohuarte.es/el-centro/instalaciones

La duración máxima del uso de estos espacios es de 2 semanas.

La aceptación del uso de cualquier espacio se verá condicionada por la programación del propio Centro.